



## MATALAS

**Piarres Larzabal**

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (IV)*, Piarres Larzabal  
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalMatalas.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## MATALAS

*(Hiru ekitaldiko antzerkia-1968)*

### Jokalariak:

**MATALAS:** 50 urte, handi, sekail, botza apal.  
**GOIHENETXE:** 30 urte, handi, bipil.  
**OLHAIBI:** 30 urte, handi, sekail, zintzo.  
**ARKAITZA:** 30 urte, edozoin, gogor.  
**HEGOBÜRÜ:** 40 urte, aurpegi gaizto, maltzur.  
**IRIGARAI:** 50 urte, edozoin, kakola.  
**BURUSOIL:** 60 urte, edozoin.  
**APEZPIKU:** 50 urte, eder.  
**ZAINDARI:** 50 urte, larri.  
**BENAT:** 12 urte, jostakin.  
**PONPIDA:** 30 urte, eder.  
**GAXUXA:** 60 urte, edozoin.  
**PANTXA:** 25 urte, moko fin.  
**MADALEN:** 20 urte, edozoin.  
**CALVO:** 50 urte, eder.  
**GOBERNADORE:** 50 urte, edozoin, «apostolu».



## LEHEN EKITALDIA

### Joka-lekua:

Biltzar toki bat, saihetsak eta gibela edozoin oihailunez. Erdi-erdian Luis XIV. erregeren potreta. Mahain bat. Jarleku batzu.

*(Bi neskato, Pantxa eta Madalen, ari dira biltzar tokiaren garbitzen)*

**PANTXA:** Ikusi dinat erregek igorri jauna. Atzo jin dun Mauleko jauregi-rat, lau zalditako (*moko jin*) karrosa batean.

**MADALEN:** Nola din izena?

**PANTXA:** Calvo omen din izena. Bigarren karrosa tapatu bat bazinan, berearen gibeletik, lau zaldi zurik tiratua. Lau andere pollit zitunan haren barnean.

**MADALEN:** Calvoren emaztea hain segur, bere zerbitzariekin.

**PANTXA:** Ez omen, bainan Calvoren bihotzeko izar berezia: Ponpida din izena.

**MADALEN:** Jes! Zer din Calvo horrek bere emaztea Parisen uzten eta ordaina hartzen gure Xuberoan gaindi ibiltzeko?

**PANTXA:** Bai neska, hola ditun jende handi horietarik gehienak: Espo-lagun bat ez dine aski, bi bederen behar ditizten.

**MADALEN:** Eta ez dun hori bekatu?

**PANTXA:** Bai guretzat bekatu dun, bainan guretzat bekatu dena ez omen dun hala jende handi horientzat.

**MADALEN:** Jes! Zer dute jende handi horiek? Beren diruari esker Elizako buruzagienganik bi emazten ukaiteko baimena erosten, ala?

**PANTXA:** Ez, ez dine haien baimena erosten, bainan haien ixiltasuna. Hi edo ni abiatzen bagina bi gizonen ondotik, ha zer eskandala! Berehala hor gintizken herriko eta elizako buruzagiak beren eskumiko eta jandarmekin.

**MADALEN:** Bai, hori segur.

**PANTXA:** Ta aldiz, Calvo jaunak, (*botza ozenduz*) «Pariseko Errege Handiak» igorria delakotz, ondotik ukanen ditin hemengo xapeldun guziak, ez bera gaitzesteko, bainan agurtzeko.

**MADALEN:** Hor zinan segur gure nagusia ere.

**PANTXA:** Ez din erran beharrik: Gure nagusia dun hemengo gobernadore eta beraz leku hontako erregeren lehen mutila.

**MADALEN:** Eta gure jaun apezpikua?

**PANTXA:** Hura ere hor zunan bere inguru guziarekin.

**MADALEN:** Gure apezpikuak ere agurtu ote din delako andere Ponpida?

**PANTXA:** Ez... ez bederen denen aintzinean, gero egin badu ere. Ponpidak bere andere lagunekin ez din parterik hartu agurketa hontan: Haren karrosa, atean gelditu gabe, jauregi barnera sartu dun.

**MADALEN:** Bazena jende hainitz bildurik jauregiaren aintzinean?

**PANTXA:** Bai betikoak: Soldado multzo bat; eskoletako haurrak erregeren bandera tipi batzu eskutan. Errientek erakatsia ziotenan «Vive le Roi!» oihu egiten, beren bandera tipiak higituz. Eta gero eskuzarta jotzale usaiako xakur manatu guziak. (*Urrats batzuen hotsa entzuten da*)

**MADALEN:** Kasu! Nagusia hor dinagu heldu.

**PANTXA:** Bai eta segur nahiko din Calvo ongi tratatu «galonen irabazteko»: Xuberoko gobernadore izaitea ez zaion aski; Bordaleko bederen edo Pariseko nahi liken izan eta harek ohore biltzeko, guk beharko pekatu.

**GOBERNADORE:** («*Apostolu*», *sartzan da*) Ari zirezte? Bon! Bai nahi nuke apur baten buruan hemen ukanen dugun bilkura iragan dadin ongi baino hobeki. Honarat jinen baita erregeren ordaina ezarriko duzue harentzat, hor erdian kadir bat eta gero inguruan, hemen, emanen dituzue zazpi alki, Xuberoko zazpi kontseilariantzat. Nerea aldiz Calvorenaren ezkerretarik.

**PANTXA:** Mahainaren gainean, jauna, estalirik ezarri behar ote dugu?

**GOBERNADORE:** Bai, bai eta erregeren bandera hau ere ezarriko duzue hor xutik. Bilkura denboran egonen zirezte ixil-ixilik, saihetseko salan. Apailatuko dituzue usaiako edari eta jatekoak bilkura bururatzean eskaintzeko.

**PANTXA:** Dei eginen daukuzu, jauna, noiz sar.

**GOBERNADORE:** Bai eta... ahanztera nindoan: Biltzarreko jaunak lagun-duko dituzue atetik barne hontara.

**PANTXA:** Ontsa da, jauna.

**GOBERNADORE:** Ta... egonen zirezte barrandan, noiz etorriko den Calvo jauna, erregeren ordaina: Hari nihaurek idekiko diot



atea. Ikusiko duzuenan heldu dela, aski nauzue berehala deitzea.

**PANTXA:** Ta orduan guk gorde behar dugu?

**GOBERNADORE:** Ez. So egizue: Emanen zirezte sar-atearen bi alderditan. Ean! Jar zaite zu hemen, eta zu hortxe. Calvo sartzean eginen diozue agurtze handia, (*berak erakutsiz*) hola zaia hartuz esku muturraz. Gero agurtuz erranen duzue: «Bassquaise humble servante de sa Majesté!» Ean nola egiten duzuen! (*Pantxa eta Madalenek manatua egiten dute*) Hola bai! Arras ontsa da. Fagore handi bat baita maila hortako jaun bat gure artera etortzea, esperantza dut grazia hoberena ukanen duela zuen aldetik. Erregek jakin dezan zer jende gisakoak diren xuberotarrak.

**PANTXA:** Eginahalak eginen ditugu, jauna, gure zerbitzua ongi betetzeko.

**GOBERNADORE:** Bai badakit nor zirezten eta holako jaun handi baten zerbitzatzeko ohoreak zuen baitan utziko duen ondorioa ez dela izanen akidura bainan zoriona. Beraz hemengo lan ondarrak burura-zkitzue. Ni banoa kontseilari jaunen goaitatzerat. (*Badoa. Pantxa irriz basten da*)

**MADALEN:** Zer dun, neska, hola irriz aritzeko?

**PANTXA:** Gure nagusi xoro horrek uste din tripa atseginez betetzen daukula, burua beheiti eta gibelaldea goiti gu ezarriz, bere jaun handiaren agurtzeko.

**MADALEN:** Bai ziminokeriek ere behar dine bizi.

**PANTXA:** Eta horien ohiduran, badakin agurtze ohoragarriena nola egiten den?

**MADALEN:** Nola?

**PANTXA:** Holaxet: Hire burua ezarriz agurtzen duenaren gibelaldearen heinean.

**MADALEN:** Zergatik hori?

**PANTXA:** Horrela erran nahi din: Zure gibel milikari naiz!

**MADALEN:** Hauxe ofizioa!

**PANTXA:** Bai, handien arteko ofizioa dun hori. Ez dine besterik erakasten tipieri. Hori deitzen dine «ohore emaita».

**MADALEN:** Balaki gure nagusiak buru makurtuen berri, urtuz hilen luken.

**PANTXA:** Bazakin, bazakin... bere burua ezagutzen baitu. Zergatik uste dun gure nagusia egoiten dela goiz guziez, jeiki-ta, apur bat leihotik so?

**MADALEN:** Aroaren hartzeko araziz?

**PANTXA:** Aroaren hartzeko bai! Bainan ez zeruko aroa bakarrik, politikarena ere bai. Hola dun gobernadore ofizioa: Erne behar dine egon, gobernuaren haizeak norat joko duen aski goiz ohartzeko eta, aintzineko nagusiak salduz, berrieri jarraituzteko.

**MADALEN:** Ta beraz gu zer gaitun gobernadorentzat?

**PANTXA:** Gu? Zer nahi dun izan gaiten? Horien eskutako karta tipienak, zernahitan baliatzeko: Gaur Calvoren ohoratzeko eta bihar haren xixtukatzeko.

**MADALEN:** Xo! Xo! Heldu zauzkinagu gizonak.

**GOBERNADORE:** (*Agertzean*) Zoazte hemendik, zuek zerbitzariak!... Zatozte aintzina, jaun kontseilariak!... (*Sartzen diru zuzpi kontseilariak. Gobernadoreak erakusten diozkeate beren jarlekuak*) Zu hemen Goihenetxe jauna; zu hor Arkaitza jauna; zu hemen Irigarai jauna; zu hor Hegobürü jauna; zu hemen Etxamendi jauna; zu hor Olhaibi jauna eta zu hemen Burusoil jauna. (*Gobernadora ospetsu mintzo zaiote*) Jaun kontseilariak, zuek zirezte Xubero hortako buruzagiak, probintzia honen gidatzeko herriko gizonak hautatuak, Pariseko gure errege Luis XIV-garren menpean. (*Burna apalduz erregeren itxurari buruz*) Ospe gure erregeri eta Jainkoak luzaz gure artean begira dezala! (*Lauek berdin burna apaltzen dute*) Badakizue jaunak, zer den gure egungo bilkuraren gaia: Beraz errege jaunak nahi du gure erresuma maitea Frantzia izan dadien munduan, gora, zabal eta ospetsu, hots iguzkia bezala lur guziaren argitzale eta berotzale.

Bainan badakizue ere ez daitekela deus handirik obra dirurik gabe. Zor zaion maila Frantziari begiratzeko, errege jaunak nahi du frantses ume guziek parte har dezaten erresumako gastuetan. Gaurko egunean gastu horiek biziki pisuak baitira, horien ordaintzeko errege jaunak nahi lituzke Xubero herri-lur batzu saldu. Agertu da jadanik lur horien eroslea, orok ezagutzen duzuen musde Arnaud de Peyrer, biarnesa. Nahi luke ere errege jaunak, zuek, jaun kontseilariak bere xedetan sustenga dezazuen, herri-lurren salmenta hori onartuz eta populuari onarteraziz. Horra jaunak, zeri buruz zaituztedan hemen bildu eta zertako gure arterat etorri den Calvo, errege jaunaren ministroa. (*Oro ixilik dagozi apur bat*) Zuk zer diozu Irigarai jauna?



**IRIGARAI:** (*Milikari*) Nere biziko legea, jaun gobernadorea, beti izan da errege jaunari obeditzea. Jainkoaren graziaz dugun kargudunaren nahikunde da neretzat Jainkoaren berarena. Gure erregek hola nahi duenaz geroz, hola izan bedi.

**GOIHENETXE:** Nik ez dut onartzen errege jaunaren xede hori. Galdatzen dut ihardets diezogun erregeri errespeturekin bainan fermuki, Xuberoko herri ontasunak gureak direla eta ez erregerenak. Beraz horiek saldu behar balin badira, guk ditza-kegu bakarrik sal eta ez beste nehorik.

**GOBERNADORE:** Ohartarazten dautzut jauna, herriari beren sortzea, izaittea ala suntsitzea heldu zaiotela Pariseko gobernuarengatik. Beraz Pariseko gobernu da zuen herri ontasunen jabea. Herriek dute bakarrik ontasun horien gozamina, ez jabetasuna.

**ARKAITZA:** (*Gogor*) Gobernadore jauna, ni mintzatuko naiz, beti bezala, ahoan bilorik gabe. Guk ere badazkigu Pariseko berriak: Badakigu gure erregea eta gure gobernu gastu gorrian bizi direla, palazio zein ederragoak altxatuz, alimaleko festak muntatuz, beti eskuin eta ezker bidaiatzen, segida handi bat ondotik. Horiek guziak noren gostuz? Populu gaixoaren izerdiaren gostuz. Hoinbeste jende alferren hazteko, behar ote zaio Xuberoko populuari ahotik ogia kendu? Gure herri-lurretan biltzen dugu guk gure kabalen bazka eta ihaurkia, gure suko egurra, bai eta ere jateko gaztaina. Jada hola hola, ezin biziarekin gure etxeak husten ari dira. Zer behar gaituzte, ondarra larrutu? Pariseko buruzagieri ihardets diezotegun, jadanik aski xurgatu gaituztela. Beren faltaz sartu diren leizetik ateratzeko, bide bat dutela bakarrik zuzenlegezkoa: Berek beren xahupideak apaltzea.

**GOBERNADORE:** Arkaitza jaunari ihardetsiko diot nik: Frantzia maitea dela gure denen ontasuna; errege jauna gu denen aita gidaria. Frantziako xahupidez mintzo girelarik, familiako xahupidez mintzo gira. Ezin onartua da hoin saminki mintzo gaiten, familiako gorabeheren zuzentzeko egina den bilkura hontan... Eta zuk, Etxamendi jauna, zer diozu?

**ETXAMENDI:** (*Kakola*) Nik diot, jaun gobernadorea, behar dugula bakea. Bakerik gabe deus ez dezakegula egin. Elgar behar ginukela nolazpait antolatu: Bai gure errege handiari bai gure Xubero maiteari, eman ez bakoitzari berea.

**HEGOBÜRÜ:** (*Maltzur*) Eta nik galde bat nahi diot egin, hoin harroki mintzatu den Arkaitza jaunari: Ea non dituen bere larderiaren ahalak! Zer egingen duzu, Arkaitza jauna, Pariseko erregeak igortzen baditu zenbait mila gizon Xuberoraz jabetzerat? Indartsuagoaren aintzinean indarrak ez du deus balio. Hautua dugu bakarrik, gogoaren alde ala kontra dugun «bai» erranen. Nere iduripena da, ondoko eguneri behatuz, hobeki aterako girela borondate ona erakutsiz, ezenez samindura.

**GOBERNADORE:** Bai, segur naiz, hola jokatzuz, ez duzuela deus galduko. Irabaziko baizik... Eta zuk, Burusoil jauna, zer diozu?... Burusoil jauna!

**BURUSOIL:** Ho?

**GOBERNADORE:** Ean zuk zer diozun?

**BURUSOIL:** Zer erranen dut bada nik? Ez dakit xuxen zertaz ari zirezten, piska bat elkortzen ari bainaiz. Hona zer diodan: Ordena behar dugula eta diziplina. Ni gerlan ibilia naiz gero! Erregeri behar genioke adierazi, larderia piska bat gehiago behar diotela gazteri erakutsi; oraiko gaztek ez baitute zaharren errespeturik. Beren politika dute bakarrik ontzat hartzen, gu pitsik ez bagina bezala.

**GOBERNADORE:** (*Mozten du*) Hortan zurekin nago, jauna: Adinak ekartzen du zentzua eta ez dezagun gure saila apaila oraino adinez onduak ez direnekin. Eta zuk, zer diozu, Olhaibi jauna?

**OLHAIBI:** (*Zintzo*) Nik daukat ez daitekela izan ez ordenarik ez bakerik ez balin bada zuzentasunik: Xuberoa betidanik bere ontasunen jabe izan da eta bere burua berak gobernatzeko eskua ukan du. Berrikitzen izan gira Frantziako koronari josiak. Frantziari jostean, gure aintzineko eskubiden errespetua hitzemana izan zaku. Hitza hitz izan dadien eskatzen dugu eta Frantziako erregek onets dezan Xuberoa izan dadien ez haren eskupeko, bainan bakarrik harekin esku-esku.

**GOBERNADORE:** Gure errege jaunak errespetu ekarri dio beti Xuberorari. Gaur galdatzen badio zerbitzu bat, ez da hor errespetu galtzerik; ez du xuberotarren baitan duen konfientzia erakusten baizik.



**PANTXA:** (*Agertzean*) Barka, jaunak! (*Gobernadoreari*) Nagusia! Jaun ministroa hor omen da. (*Jalitzen da*)

**GOBERNADORE:** (*Pantxari*) Ongi da, heldu naiz... (*Kontseilariari*) Jaunak, Calvo, jaun ministroak barda arratsean galdatu daut zueri bi hitzen erraiteko baimena. Baietz erran diot: Oraixe berean aipatzera nindoan jaun horren xedea. Beraz hona non zaukun heldu. Pentsu dut ongi etorri egingen diozuela. (*Jalitzen da... Kontseilariak elgarren artean mintzo dira. Apur baten buruan gobernadorea itzultzen da Calvorekin*) Hona Calvo jauna, errege jaunaren ministroa! Ongi etorri gure arterat, jauna! (*Gobernadoreak presentatzen ditu bederazka kontseilariak ministroari eta hauek Calvo agurtzen dute, edo apalki ukurtuz edo xut egonez, nor zein diren*)

**CALVO:** (*Bere alkitiik*) Jar zaitezte, jaunak! Duela lau egun gure errege jaun ospetsuak galdatu daut Parisen, joan nindakion buruz buru mintzatzera. Ohore neretzat. Ohore handiagoa oraino zuentzat, jaunak, eta Xuberoarentzat. Ezen hona hitzez-hitz, zer erran dautan errege jaunak: Zoaz Xuberoratu. Xuberoa da ene koronako perla ederrenetarik bat: Betidanik Xuberoak eman diozka ene armadari beso azkar eta leialenak. Hortakotz ez naiz mintzatu nahi xuberotarreri edozein mandatariren bitartez, bainan erresuma handietarat igortzen ohi dudun kargudun baten bidez. Erroztue Xuberoko kontseilariari horien atea jotzerat heldu naizela, bere adiskidenganat jotzen baitu lehenik behar-orduan gertatzen denak. Zazpi dira. Badazkit zazpi izenak. Xuberoko populu guziaren aintzinean, bakoitzaren papo gainean ezarriko duzu nere zerbitzari leialeneri eman ohi diotedan medaila berezia. (*Lauek eskuak jotzen dituzte*)

**BURUSOIL:** Zer erran du?

**HEGOBÜRÜ:** Medaila... medaila bedera ukanen dugula.

**BURUSOIL:** Medaila? Zergatik? Lehenago baditut hiru gerlan irabaziak. Haiek badakit zergatik ukan ditudan, bainan oraiko hau?... (*Hegobürük sorbalda altxatzen du*) Bon, bon... dena ere on!

**CALVO:** (*Jaunskil*) Horra, jaunak, nola bere bihotza zabalik daukan gure errege jaun ospetsuak zuen eta Xuberoko populuaren alderat. Estimatu duzue jaun erregeren atxikimendu hori eta segur zuen baietza gogotik emanen, egiten dautzuen eska-bideari. (*Oro apur bat ixilik dagotzi*)

**GOBERNADORE:** Jaunak mintza zaitezte lanoki, zuen ikusmoldea agertuz ministro jaunari.

**ARKAITZA:** (*Gogor*) Ministro eta Gobernadore jaunak, holako galdeari ihardesteak behar du zenbait gogoeten egiteko epea. Iduritzen zait kontseilariak behar ginukeela apur bat elgarrekin mintzatu. Gure solasak elgarren artean erabili-ta funtskiago eman baiginezake gure gogoen berri.

**CALVO:** Zuzen zabilta, jauna: Multzo baten begiz gauzak hobeki ikusten dira, norberarenez baino.

**GOBERNADORE:** Ongi!... Zuen arteko bilkura saihetseko sala hortan egi-terat gomitatzen zaituztet beraz.

**HEGOBÜRÜ:** (*Maltzur*) Ez dugu bilkura beharrik gure errege aitari «baietz» erraiteko, bainan hortan girenaz geroz, goazen. (*Kontseilariak jalitzen dira. Calvo eta gobernadorea bakarrik gelditzen*)

**CALVO:** (*Jaunskil*) Ongi mintzatu ote naiz, jaun Gobernadore?

**GOBERNADORE:** (*Apostolu*) Behar zen hura erran duzu, jaun ministroa, eta behar zen bezala.

**CALVO:** Bai, zuk barda arratsean salatuak jakinik moldatu dut ene solasa.

**GOBERNADORE:** Gizon guzietan eta bereziki euskalduneri laket zaiote ohorea. Ohore emaita da horien biltzeko biderik errexena: Arras ongi pentsatu duzu medaila eskaintze hori. Medailak ez ditu bakarrik ohortzen gure gizonak bainan ere ohorea zor zaiotela dio populuari erakusten.

**CALVO:** (*Irriz*) Hori duzu: Jende tipiek medailari ezagutzen diote bere balioa. Handiek aldiz, tipien enganatzeko daukan balioa.

**GOBERNADORE:** Dena den, guri ere, ongi baliatzen zaigun gauza da medaila; horren ukailea zordun gelditzen baita emaielaren alderat. Horri esker zenbait-zenbait kasko gogor leuntzen, guritzen eta gureganatzen ditugu.

**CALVO:** Eta horiek hola, nola iragan da hemengo bilkura?

**GOBERNADORE:** Hala hola!... Konduen egitea errex da: Zazpi kontseilarietarik hiru ditugu kontra eta lau alde. Aitorturen dautzut nahiago nukeela, kontra ditugun hiruak baginitu alde, eta kontra aldiz, alde ditugun lauak. Alde ditugunetan dituzu: Lehena xahar xoxola bat; bigarrena zangopetan herrestan ibiltzale horietarik; laugarrena berriz, gu baino guretarrago den errabiatu bat. Beste hirueri jarraikia dago Xuberoko populu guzia.

**CALVO:** Hiru horiek ez ote ditzakegu gureganat bil nolazpait?



**GOBERNADORE:** Ez dut ikusten nola: Ez dute behinere onartu herri giderrak izan dituen Parisen, ez-eta nehongo arrotzen eskutan. Horien gogoia hemengo jendearen gogoaren oihartzuna da eta horien jokabidea izan da betidanik Xuberoaren beregaintasuna begiratzea.

**CALVO:** Eta apezek zer diote?

**GOBERNADORE:** Apezetan ere baduzu orotarik, bainan bipilenak kontra ditugun hiru kontseilarien eskolakoak dira. Denen supiztalle dute Matalas, Mitikileko erretora.

**CALVO:** Nor da Matalas apez hori?

**GOBERNADORE:** Hori da, hiru kontseilari horietarik baten osaba; apez pizkor bat. Bernard de Goihenetxe du izena. Matalas izen-goitia. Gizon bat bipila eta zorrotza.

**CALVO:** Ongi! Mintzatuko naiz apez hortaz jaun apezpikuarekin.

**GOBERNADORE:** Uste duzu apezpikuak zerbait eginen duela apez horri hegalean mozteko?

**CALVO:** Ez ote dauku holako bat zor? Apezpiku balin bada ez ote da hala erregeri esker?

**GOBERNADORE:** Bainan Mitikileko erretorari jazartzen bada apezpikua, bere apezetarik hainitz kontra izanen dituela, ni beldur.

**PANTXA:** (*Agertuz*) Barka, jaunak! Hemen bada andere bat jaun ministroa ikusi nahi lukeena. Haren izena, Ponpida, aipatzea aski dudala erran daut.

**CALVO:** A! Bai hala da: Errana nion honarat etor zedin. Sar araz-zazu, otoi! (*Pantxa jalitzzen da... Calvok irrino batekin gobernadoreari*) Pentsu dukezu, jaun gobernadorea, nolakoak diren andere honekin nere harremanak! Hitzemana nion, hemengo bilkuratik landa, joanen ginela, biak karrosan, inguruko lekuen ikusterat.

**PONPIDA:** (*Agertuz*) Hona! Ni hemen, hitzeman bezala!

**GOBERNADORE:** Zorionak, anderea, ongi etorria izan zaite gure arterat. (*Eskuari musu emaiten dio*)

**CALVO:** Jaun gobernadorea, zer kontseilatzen daukuzu, bazter ikusterat norat joaitea, arratsalde hontan, andere Ponpidarekin?

**GOBERNADORE:** Andereak erran beza zer litzaiokeen atsegin.

**PONPIDA:** O! Jaun gobernadorea, oro ikusi nahia naiz eta zernahitaz berdin tirriatua. Parisen entzuna nuen Euskal Herria eta hemengo jendea arras bereziak zirela. Egia da. Hemengo

etxeak, elizak, zeruaren garbia, bazterraren ferdea, denak nehon ez bezalakoak aurkitzen ditut.

**GOBERNADORE:** Zorigaitzez, anderea, ez zira jende gutirekin baizik mintzatzen ahalko: Hemengo jendeak ez baitaki frantsesik.

**CALVO:** Bainan makur hori, zenbait urteren buruko xuxenduko dugu: Errege jaunak manua eman baitu frantses eskolak muntatzeko herri guzietan.

**GOBERNADORE:** Laster beren mintzaira basa hori galduko ahal dute! Hola bederen konprenitzen ahalko ditugu eta ez dira gure jorran ariko beren hizkuntzan.

**PONPIDA:** Uste duzu gure jorran aritzen direla, Gobernadore jauna? Nik hasteko halako handiki aire bat aurkitzen diot hemengo jendeari; ez du iduri maltzurkeriarik badela horren baitan.

**GOBERNADORE:** Badakizu anderea, itxura dela maiz enganakor: Zuk uste baino malezia gehiago izan daiteke buru zintzo, tente, horien barnean.

**PONPIDA:** Euskaldunek ba omen dituzte ere, pilota, dantza eta beste joko batzu biziki ederrak.

**GOBERNADORE:** Bai, anderea, eta ikusi nahi dituzunaz geroz, muntatuko dugu zure ohoretan plaza-besta eder bat: Ekar araziko ditugu Xuberoko dantzari, kantari eta pilotari hoberenak.

**PONPIDA:** Ez, jaun gobernadorea, ez dut holakorik behar: Ez nuke nehorrentzat karga emaile nahi izan.

**GOBERNADORE:** Euskaldunek gogotik eskainiko diote holako besta bat zure graziari.

**CALVO:** Ta errazu, jaun gobernadorea, bada hemen ihizi-lekurik? Biziki laket zait ihizin ibiltzea.

**GOBERNADORE:** Ez da segur ihizi eskasik hemen gaindi. Lumako edo ileko, baduzu hauta: Orein, orkatz, basahuntz, hartz, otso eta beste hainbeste xori mota. Aintzinetik erraitea aski duzu noiz nahi duzun ihizira joan eta behar dituzun lagun-tzaleak eta tresna guziak bilduko dauzkizut.

**CALVO:** Milesker, bihotzetik, jaun gobernadorea, zenbait egun goxo iraganen ditugu hemen gaindi, zuri esker. Oroituko naiz zutaz Parisen.

**GOBERNADORE:** Zure zerbitzari! Jaun ministroa, zure xeden ohoratze.

**CALVO:** Bainan orena aintzina doa. Ez dezagun denborarik gal! Zu Ponpida jaliko zira eta egonen ene aiduru karrosa barnean.

**PONPIDA:** Ongi da.





**CALVO:** Eta zuk, jaun gobernadorea, gizon horiek beren erraitekoak erranak baitituzte engoitik, deitzen ahal dituzu honarat.

**GOBERNADORE:** (*Andere Ponpida atera lagunduz*) Laster arte, beraz ande-rea!

**PONPIDA:** Bai, laster arte! (*Jalitzzen da*)

**CALVO:** (*Irrino batekin*) Ta jaun gobernadorea, zer diozu nere bihotzeko hautuaz?

**GOBERNADORE:** Goresmenak, jaun ministroa, primadera ekarri daukuzu zurekin!

**CALVO:** Bego hortan!... Bestalde, ez egin otoi odol gaiztorik zure hiru gizon horiengatik: Gure eztabaida ez da begietako errautsa baizik. Herri lur horien salmenta jada sinatua dugu. Ez badute onez onean emaiten beren baietza, bortxaz kenduko diotegu. Indarra gurekin dugu... Sar araz-zkitzu; aire hartzerat joan nahia naiz eta bi hitzez trenkatuko dugu auzi kokkor hori.

**GOBERNADORE:** Ongi da, jaun ministroa! (*Jalitzzen da. Calvo bakarrik dago, apur bat gogoetatua. Sartzzen dira lau kontseilari. Horien gibeletik gobernadorea*) Bainan, jaunak, non dira beste hiru kontseilariak?

**ETXAMENDI:** Ez dakigu, jauna, hiruak, beren artean, bereiz mintzatu dira, erranez basurde ihizirat zoazila.

**GOBERNADORE:** (*Haserre*) Basurde ihizirat?

**ETXAMENDI:** Hala erran dute... Zernahi basurde mota ba omen dabila Xuberoan, bereziki sasoin hontan.

**GOBERNADORE:** (*Haserre gorri*) Zer da komedia hau?

**CALVO:** (*Hozki moztuz*) Ixo, jaun gobernadorea! Beraz zazpietarik lau, erregek hartu xedearen alde zirezte?

**LAUAK:** Ni segurik bai!... Bai, jauna, bai!... Erran gabe doa.

**CALVO:** Ederki! Beraz erregeren alde gehiago zireztenaz geroz, kontra baino, herri lurren salmenta ontzat harturik gelditzen da. Nere esker-rrak eta goresmenak zueri, lau kontseilari jaunak. Aipatuko dut Parisen zuen egitate zuhur eta bertutetsua. Galdatzen dautzuet populuaren argitzea eta hartu xedearen alde biltzea. Jaun gobernadorea hor ukanen duzue laguntzale.

**LAUAK:** Bai, bai! Eginahala eginen dugu. Gobernadorea gurekin badugu, hori bera aski dugu.

**CALVO:** Horra beraz! Erranak erran... Hontan bereiziko gira elgarretarik. Zuen artean bainago zenbait egunentzat, berriz elgar ikusiko dugu, hala beharrean. Bestaldi bat arte, jaunak!...

**LAUAK:** Bestaldi artino, bai, jaun ministroa! Jainkoak nahi badu... (*Lauak jalitzzen dira*)

**CALVO:** (*Irriz*) Gizagaizoak!

**GOBERNADORE:** Holako ardi mantsoen ilea moztea errex da! Nahi nuke jakin zer bilakatu diren beste hiru marroak!

**CALVO:** Ez ahal zira haien beldur!

**GOBERNADORE:** Bai haien beldur naiz, haiek baitaukate eskutan Xubero-ko populu guzია eta bazter guziak nahasten ahal baitituzte.

**CALVO:** Holakoetan kontrarioak elgarren artean nahastea da gure jokabi-dea: Bota zenbait beldurra, besteri lausengua edo dirua. Munta edozoin saltsa horien artean, guk, Parisen, hola garaitzen ditugu gobernuaren etsaiak. Frantsesez diogu: «Diviser pour régner».

**GOBERNADORE:** Hemen ere, orai arte, hola ditut kudeatu hemengo jendeak, bainan orai-aldian beldur naiz ez ote duten denek «bat eginen» gure deliberoen kontra.

**CALVO:** Ta gero zer? Armen indarra ez ote da gure eskutan? Ez zaitela kexa! Mila soldado askiko dira hemengo arrenkura eta zinkurina guzien ixilarazteko. Ez beraz odol gaiztorik egin!... Eta goazen aire hartzerat!

OIHALA





## BIGARREN EKITALDIA

### Joka-lekua:

Erretor-baitako sala bat. Lehen ekitaldiko oihal ilun bera. Erregeren potretaren orde, kurutze bat. Mahain tipi bat, eta zenbait kadira. Belaun-alki baten gainean estola, supeliza edo apez-etxe batean girela erakusten duen edozein jauntzi.

*(Benat ogi eta gasna jaten ari da, aintzinean duen liburua irakurtzen duela)*

**BENAT:** «Dominus, domine, domini, domino, domino, dominum...» Ai ai, ai ei! Zer botigal!

**GAXUXA:** *(Agertzen, pitxerra eta oporrarekin)* Nahi baduzu apeztu, latina beharko duzu ikasi.

**BENAT:** Nik ez dut apez egin nahi.

**GAXUXA:** *(Zerbitzatu)* Matalas arrazan izan dira betidanik apezak: Hemen, Mitikilen osaba apezak bere etxean hartu zaitu, pentsu baitu egun batez hartuko duzula haren segida.

**BENAT:** Nik aita bezala nahi dut izan.

**GAXUXA:** Aita ere Xuberoko kontseilari duzu: Osaba bezala nahi baduzu edo aita bezala kontseilari izan, berdin beharko duzu eskolatu. *(Jalitzen da)*

**BENAT:** *(Nardatua irakurtzen)* «Dominus, domine, domini, domino, domino, dominum...» Hau zozokeria!

**MATALAS:** *(Agertzen, liburua eta makila pausatzen belaun-alki gainean)* Ea, Benat! Ikasi duka «Dominus, domine...»?

**BENAT:** Bai, osaba, dena kasik badakit.

**MATALAS:** *(Liburua eskutan hartuz)* Ea, ikus zer dakikan!

**BENAT:** Ta oraino arras ongi oroitzen naiz, zuk atzo erranaz *(botza harrotuz):* «Salve Xuberua, ex omnibus locis pulcherrimus!»

**MATALAS:** *(Irriz)* Ta hori bera nola da euskaraz?

**BENAT:** *(Kantuz)* «Agur Xuberua, bazter guzietako xokorik ejerrenal!»

**MATALAS:** Bai ongi duk horren jakitea, baina badakika hoin ontsa «Dominus, domine...»?

**BENAT:** *(Buruari haszka)* Bai eta, beste hura ere ez dut ahantzia gero!

**MATALAS:** Zer beste?

**BENAT:** *(Xutituz eta hitzen araberako keinua eginez)* «Vade retro Calvo!»

**MATALAS:** Horrek erran nahi baitu?

**BENAT:** «Calvo, habil debruatarat!» *(jartzen da)*

**MATALAS:** *(Mahainerat burbilduz, kopeta ilun)* Bai segurki! Doala debruatarat eta berekin eraman ditzala, gure bizkar bizi diren enplegatu, alfer, arrotz, guziak! Bainan «Dominus, domine...» horrekin, ikus zertan haizen.

**BENAT:** *(Berriz buruari haszka)* Otoi, osaba, ez da gehiago latinez nehor mintzo! Nahiago nuke «Dominus...» euskaraz ikasi.

**MATALAS:** «Dominus, domine, domini...» euskaraz?

**BENAT:** Zergatik ez?

**MATALAS:** *(Gogotatua)* Funtsean hola duk: Egunak eta urteak ari gaituk gu euskaldunak, arrotza eta hila den latin mintzairaren ikasten eta oren bat ez diagu, gurea eta bizia den euskararen ikasteko!

**BENAT:** Egia hori!

**MATALAS:** Bai zorigaitzez egia, bainan *(botza ozenduz ilobari buruz)* egia ere alfer-aldi dukala hik egun. Gure zaldi hori eremak pentzerat eta hori zainduz ariko haiz gramatika ikasten. *(Norbait badela ohartuz, xutitzen da)*

**BENAT:** *(Leibotik so)* To! Aita heldu!

**MATALAS:** Hire aita? Tenore hontan?... Agur ezak jalitzean eta habil zaldiarekin. *(Benat jalitzen da)*

**GOIHENETXE:** *(Apu baten buruan agertzen da)* Agur, osaba!

**MATALAS:** Agur, iloba! Hi, tenore hontan hemen? Zer gertatzen zaik?

**GOIHENETXE:** Ta zuri zer gertatu zaizu barda bi jandarmekin?

**MATALAS:** *(Kadira bat eskainiz)* Hiregana heldu baita berria?

**GOIHENETXE:** *(Hurbilduz jartzen da)* Maule guzia hortaz mintzo da. Neri goiz hontan jin zait Atarratzera berria.

**MATALAS:** Hona egia, den bezala. Barda ilundirian, bi jandarma etorri zaizkiat arrastatzerat. Gobernadorearen manuz, omen. Nahi baitzaiztaten eskuak katenaz lotu, erran zioteiat: «Katenak ezartzekotan beharko nauzue lehenik hill» Piska bat izitu ditiat eta bien artean eraman naie, batere estekarik gabe. Gero, ur handiko zubia iragaitean, —zubi horrek ez baitu saihets makilarik— berek uste ez zutelarik, galtz-ipurtik, «braul», hartu diat batto, ondotik bestea eta biak urerat aurtiki.

**GOIHENETXE:** *(Kolpez xutituz)* Ta gero?



**MATALAS:** (*Lasai-lasai*) Gero, to!... Pentsatzen diat uretik jali direla. (*Irriño batekin*) Ni etxerat itzuli nauk. Berehala bildu gaituk hemengo gizonak eta multzo bat armaturik prest ziaudek, jandarma edo botiga heldu badira bazterren nahasterat.

**GOIHENETXE:** Gobernadore zikin hori da bazterren nahasten ari: (*Hase-rre gorri*) Atarratzeko inguruan lan bera egin dauku; neri ere arrastatzaileak igorri dauzkit.

**MATALAS:** Nola egin duk ihes? (*Pitxer bat arno ekartzan du eta bi opor*)

**GOIHENETXE:** Nere zaintzaleak prest nituen aintzinetik: Arrastatzaileak agertu direlarik gizon multzo bat bildu dira ene ingururat eta arrastatzaileak, iziturik, laster lekutu. Harrikaldi on bat ukanik ordea, gibeletik.

**MATALAS:** (*Zerbitzatur*) Ta hi, gero, mendiz hona etorri?

**GOIHENETXE:** Bai eta bi lagun kontseilariari ere gaztigatu, hona bil ditene haiek ere.

**MATALAS:** Zer zioz bada herriko jendeak?

**GOIHENETXE:** Gure eskualdean bederen arras alde ditugu: Gobernadoreak euskal besta handi bat prestatu nahi omen du, Calvoren amorantearen ohoretan. Gure dantzari eta kantari batzueri dei egin diote, bainan denenganik eza ukan du. Salbu batenganik eta hau erregetiar kontseilari horietarik baten etxezaina, omen: Ogia ez galtzekotz, «bai» erran behar.

**MATALAS:** Gobernadore zitala! Lur ebatsien jabek ohore eta besta egin behar orai beren ohoinari! Hauxe da kopeta!

**GOIHENETXE:** Bai, ohore ohoinari eta gainera ohoin-nagusiaren amoranteari: Gure larrutzea ez aski; larrutuen esker ona oraino nahi!

**MATALAS:** (*Kanpotik arrabotsak entzutean*) Jes! Zer dira arrabots horiek? (*Leihotik behatur*) To! Gure gizonak geldiarazi die plazarat sartu den zaldi-karrosa bat... Jaun bat karrosan. Ea pape-rak non dituen!... O, o! Kexu, kexu, gure jauna!

**GOIHENETXE:** (*Leiborat burbilduz*) Bainan, bainan... ezagutzen dut nik, jaun hori, gobernadore, bera da.

**MATALAS:** Zer, gure gobernadore tzar hori? Segur haiz?

**GOIHENETXE:** Bai, bai! Arras segur.

**MATALAS:** Ontsa! Hi hago gibeletik. Ni aterako nauk: Garbituko baitute gure gizonak, sekula jakiten badute. (*Biak jalitzen dira, bat bere gordagirat, bestea kanporat*)

**GAXUXA:** (*Goibenetxe atera den atetik agertuz, leiborat buruz doa*) Zer da hor? Oi, oi! Jaun hori hilen dute... Beharrik horra gure apez-a heldu.

**BENAT:** (*Kanpotik heldu*) Errazu, Gaxuxa!

**GAXUXA:** Zer da? Nondik heldu haiz? Non duk zaldia?

**BENAT:** O! Zaldia, iturrira joana, jauzi-putinka, egarritua baitzen. (*Leihotik so*) Gure osabaren beso ginarrietako mitxa! (*Jestua eginez*) Lagun batek oro erran dauzkit: Zubiaren gainetik bi jandarmak urerat; lehenik bat: «plast!», bestea ondotik: «plast!», gero han biak igerika, holako amuarrainak! (*Igerikaren eskarnioa eginez*)

**GAXUXA:** Haugi nerekin; goazen hemendik: Horra apez-a, karrosa barneko jaunarekin. (*Matalas eta gobernadore sartzan dira. Hau haser-re gorrian, gaizki erabili dutela, jauntzitik ageri*)

**GOBERNADORE:** Zer dira manera hauek, jaun erretora? Nork manatu ditu gazte horiek neri hola jazartzeko?

**MATALAS:** (*Idorki*) Nork manatu ditu, jaun gobernadore, barda bi jandarma ni preso hartzerat etortzeko?

**GOBERNADORE:** Ez ote zaio haizu hemengo gobernadoreari Mitikilen gaindi ibiltzea, mandilen eskuetan erori gabe?

**MATALAS:** Ez ote zaio haizu hemengo erretorari gauaz bere etxean lo egitea, mandilen bisitarik ukan gabe?

**GOBERNADORE:** Noiztik dira gure jandarmak mandil batzu?

**MATALAS:** Zure esku-makil bilakatuz geroztik.

**GOBERNADORE:** Zer mandilkeria egin dut nik?

**MATALAS:** Nork ditu Xuberoko gure herri-lurra ebatsi eta saldu?

**GOBERNADORE:** Egitate hortaz arregura zaite, ez niri, bainan errege jaunari.

**MATALAS:** Erregek deus ez dezake, meneko xakurren laguntzarik gabe.

**GOBERNADORE:** Nik nere gobernadore kargua dut bete.

**MATALAS:** Ez zaitute behinere xuberotarrek hautatu beren gobernadore.

**GOBERNADORE:** Frantziako erregearenganik dut nik kargu hori.

**MATALAS:** Frantziako erregeak ez du Xuberoan manatzeko eskubiderik.

**GOBERNADORE:** Jakin nahi nuke zergatik.

**MATALAS:** Betidanik bere gain izan da Xuberoa. Ez dio nehoi ez eman ez saldu beregaintasun hori Xuberoak. Frantziako erregea azpilanetan ari da gure jabetasun hori beretu nahiz.

**GOBERNADORE:** Ez dut onartzen errespetua gal diezozun ene errege jaunari.



**MATALAS:** Ez nik ere, Xuberoari gal diezozuen zuek, handi ala tipiek.

**GOBERNADORE:** Frantziako erregearena da Xuberoa.

**MATALAS:** Xuberoa da xuberotarrena.

**GOBERNADORE:** Zer naiz bada ni zuentzat?

**MATALAS:** Zu zira ohoinen mutila, kargutan jarria ebatsi dituzten ontasunen gobernatzeko.

**GOBERNADORE:** Ez zira kopetarik gabe, neri hola mintzatzeko: Ahantzi ote duzu ni naizela jandarmen buruzagia?

**MATALAS:** Eta zuk ahantzi ote duzu, jauna, nere mutil gazte horien presoner zirela tenore hontan?

**GOBERNADORE:** Zu zirenez geroz horien aintzindaria, zu izanen zira ere hobendun zerbait gertatzen balin bazait. Zer egin gogo duzu nitarik?

**MATALAS:** Hori ikusiko dugu gure mutil horiekin. Goazen horietarat. Zoaz aintzinean, heldu nauzu ondotik. *(Jalitzzen dira)*

**GAXUXA:** *(Aurpegi beldurti batekin)* Sar zaitetzte, sar, jaunak! Ez da hemen nehor. *(Sartzen dira Goihenetxe, Olhaibi, Arkaitza)* Ez dakit zer gertatzen den: Gure apeza kalapitan ari izan da hemen zen jaunarekin. Orai so egizue, *(leibotik behatzen du)* biak hantxe dira, gure mutilek inguratuak. *(Jalitzzen da)*

**GOIHENETXE:** *(Bipil)* Gobernadore zirtzila! Behar dik kopeta, gauaz jandarmak igorri-ta, biharamunean bera hemen agertzeko! Bainan saltsa gose balin bada gure osabak saltsa onduko zio.

**OLHAIBI:** Bai ez diat beldurrik: Ez dikek gatz eta biper eskasik ukanen hire osabaren saltsa horrek.

**GOIHENETXE:** Eta Barkoxen gaindi, bakean zireztea zuen eskualde horietan?

**OLHAIBI:** Bakean? Ez gaituk hortarik ari, to! Hegobürü sorjes hori bazter nahasten ari zaiguk. Iragan merkatuan mozkor arazi zitian bere kideko batzu eta neri tzarkeria egiterat igorri: Ostatuan nintzelarik ene zaldia libratu ziteian eta ene karrosa uzkaile.

**GOIHENETXE:** Jakin duka nor ziren?

**OLHAIBI:** Bai hatzeman ditiat eta bizkar beroaldi bat ona eman zieiat. Bainan herenegun bi belar metari su eman zaitaie. Doidoia diat etxea erretzetik begiratu.

**GOIHENETXE:** Ai, urdeak! Nor ote ziren su emaleak?

**OLHAIBI:** Gobernadorearen polizak, Oloronetik igorriak, Hegobürük galdaturik. Horiek berek die arroltze ustelez harrikatu Burusoil xoxola horren karrosa.

**GOIHENETXE:** Burusoilen karrosa, erran duka? Hori berena die. Zergatik bada?

**OLHAIBI:** Motelskoa baita gizona, gure kontra berotu nahi izan die, guk harrikatu dugula sinetsaraziz.

**ARKAITZA:** Badiagu holako gure aldean ere: Muskildiko herri-lurra saldu-ta, paxetak ezarri zizteian inguruan. Gau batez paxetak oro errotik ateratu-ta eraman ditie norabait. Biharamunean jandarmak ibili dituk bost etxetan, gobernadorearen partez erranez, bakoitzari etxeko behirik ederrena kenduko ziotela, paxetak ez bazituzten aintzineko lekuan ezartzen. Etxe horietakoek ez ziteian bada deus ikustekorik saltsa hortan.

**OLHAIBI:** Zer zituzten, ala jende horiek gure kontra muntatu nahi?

**ARKAITZA:** Bixtan duk baitetz.

**GOIHENETXE:** Ai, urdeak! Hola sartzen die beldurra jende xehea baitan; jende xehea egoiten duk ixil eta umil, oro jasaiten, ondorio gaiztoagorik ez ukaiteko.

**ARKAITZA:** Jende xehea ez duk ez hobendun, bainan gutarteko papo handi batzuk Xuberoa saltzen die, argi eta garbi dakitelarik zer ari diren.

**GOIHENETXE:** Batzu ari dituk dirutan truk. Beste batzu ohore gosez. Gure etsairik handienak ez ditiagu Parisen, bainan hemen gure etxen. Halako apostolu arrazoin batzu aterako ditie: Parise gabe deus ez girela; Parise gabe ez gaitzekela bizi; hobe dugula pixka bat gal eta jasan, ezenez-eta jazar eta oro gal; eta holako!... Zinez ateka gaiztoan gaituk eta baniagok ez ote ginuken, beste orduz bezala, sasi-armada bat muntatu behar, hemendik sisti, handik sasta, etsaiari lotzeko.

**ARKAITZA:** Nik nahiago nieke xuberotar armada bat agerian muntatu eta Xuberoko gider guziez jabetu.

**OLHAIBI:** Xuberoko populua gurekilan ote ginuke, hola abiatzen bagina?

**ARKAITZA:** Gazte gehienak segur bai. Guri duk bestentzat beldurra lokarrien haustea, kolpe handi bat eginez.

**OLHAIBI:** Badakik jendea errazkiago jarraitzen zaiola hezur eta haragizko gizonari ezenez zuzenbidearen izar hutsari. Jazarkun-



dearen banderari bezala behar ginিকে Xuberoko buruzagi pizkor eta bipil bat, orok edo gehienek onart lezaketena?

**ARKAITZA:** Nik begistatua diat, guk behar dugun gizon hori.

**OLHAIBI:** Nor?

**ARKAITZA:** Matalas, etxe hontako apeza. Hor dik Matalasek bere izena. Bere apez lagunek eta beste hainitzek ongi ikasia duk. Guk behar bezalako gizona duk.

**OLHAIBI:** Bainan berak nahiko ote du?

**ARKAITZA:** Berari galdegin beharko. To, hona non heldu zaukun. (*Leibotik ikusi du*)

**MATALAS:** (*Sartzean*) Sobera, soberakin! (*Goibenetxeri buruz*) Gobernadorea garbituko ziteian ez baniote aztaparretarik kendu. (*Olhaibi eta Arkaitzari ohartuz*) A! Hemen zuek ere?

**ARKAITZA:** Bai jauna, bai! Badakizu nola etxetik iheska joan behar izan giren.

**MATALAS:** Jakin ditut zuen berriak. Hemen Mitikilen, gaurkoan bederen gu gira nagusi: Nihaurek hartu ditut herriko giderrak, ez ditzen izan arrotzak manatzale.

**OLHAIBI:** Jaun erretora, ez duzu uste, zuk hemen, Mitikilen, hartu duzun bide bera behar ginukela hartu Xuberoa guzikotzat?

**MATALAS:** Zer erran nahi duzu?

**OLHAIBI:** Erran nahi dut, zuk Mitikileko giderrak hartu dituzun bezala, behar ginukela norbait aurkitu Xubero guziko giderrak oro bere eskutan har litzazkeena.

**MATALAS:** Baitezpadako liteke, kenka gaizto hontan. Gure saila eraman dezagun ez barraiatuki, orai bezala, bainan orok elgarrekin, elgarri loturik. Bainan nor ikusten duzu, Xubero hontan denek, edo gehienek, onar lezaketen gizon hori?

**OLHAIBI:** Ori, jaun erretora, xuberotarren banderari horren hautua egina dugu gure artean.

**MATALAS:** Eta nor?

**OLHAIBI:** Zu, jaun erretora!

**MATALAS:** Ni? Zer kariatz?

**OLHAIBI:** Zu baitzira, gure artean, indarrari indarrak ihardoki duzun lehena, gizon armatu multzo bat moldatuz zure inguruan. Zure izena eta itzala Xuberoa guzian zabalduak dira. Nehor ez da zure bekaizti izanen, orok onetsiko baitute ez zirela ontasun edo ohore gosez denen aintzineko jarri, bainan bai Xuberoko herriari zerbitzu egiteagatik.

**GAXUXA:** (*Agertzean*) Barka, jaunak, plazako mutil zenbaitek nahi lukete berehala jaun erretorekin mintzatu.

**MATALAS:** Ontsa da, Gaxuxa, heldu naiz. (*Biak jaltzen dira. Beste biruak elgarretaratzen dira*)

**GOIHENETXE:** Goazen solasak izartuz: Nik ezagutzen diat ongi nere osaba. Hartzen dituen xedeak, beti kaskoz hartzen ditik; aldeko eskualdea eta kontrakoa ongi haztatuz; bainan behin bide bati lotuz geroz, ez duk debrurik bide hartarik baztertuko duenik.

**ARKAITZA:** Holako aintzindariak behar ditiagu orai, eta ez «norat haize, harat aise» dabiltzan pika buztan horiek.

**GOIHENETXE:** Hori, hori! Gure suak onbor idorra behar dik, eta ez zume ergela.

**MATALAS:** (*Irrino batekin agertzen da atean. Besteak hari buruz daude*) Pentsa gure gaztek nor daukaten hor preso!

**ARKAITZA:** Nor ote?

**MATALAS:** Andere Ponpida.

**ARKAITZA:** Calvoren amorantea?

**MATALAS:** Hura eta bera... Karrosan zoan, omen, Nabarrenkoserat, hemen gandi. Segur naiz harat hitzartuak direla gobernadorearekin. (*Irri maltzur batekin*) Jukutria zer bait munta ginezake menturaz, paradaz balia.

**ARKAITZA:** Zein jukutria?

**MATALAS:** (*Mahain muturrerat burbilduz, beste hiruenganat*) Eman dezagun zu zirela hemengo buruzagi lehena, gobernadoreak buru ezarria. Andere horri mila lausengu eginen dizkiozu eta, ziri-ziri, kofesatuko duzu. Ez dukegu salatari hoberik, gure etsaiak zer xedetan dabiltzan jakiteko, andere hori baino.

**ARKAITZA:** Ez dautazu lan tipia emaiten!

**MATALAS:** Ixo!... Hor da... Zoaz agurtzerat... Gu goazen gordetzerat. (*Badoaz*)

**ARKAITZA:** (*Ponpida sar arazi, grazia handirekin*) Ongi etorri gure artean, anderea! Barkatuko duzu nere ausartzia. Jakin dudalarik nor zuten gelditu gure mutilek, ezin izan dut garaitu zure agurtzeko gutizia.

**PONPIDA:** Lehen buruz buruan piska bat izitu naute, egia erran, zure mutilek, bainan gero mantsotu dira. Ondotik ezin xarman-tagoak agertu dira.



**ARKAITZA:** Nahi dugu jakin nor dabilen hemen gaindi. Hortako ditugu gelditzen iragaile guziak. Erregeren kontra ari diren bazter nahasle horietarik ez ginuke nahi utzi sartzerat.

**PONPIDA:** Bizpahiru Xuberoko kontseilari omen dituzte buru berotzale, bazter nahasle horiek. Hola entzun diot Calvo jaunari.

**ARKAITZA:** Deusez, deusez!... Buru bero batzu eta haien iduriko apez zenbait, deusez!

**PONPIDA:** Bai apez bat omen da guziz gaiztoa. Barda preso hartzekoa zuten. Engoitik preso daiteke.

**ARKAITZA:** Apez bat preso? Zein ote? Matalas ote?

**PONPIDA:** Bai izen hori bera da: Matalas. Gure etsai porrokatua, omen. Jaun apezpikuaren baimenarekin preso sartzekoa zuten; gero hemendik urrun bidaltzeko; bakea eman dezan.

**ARKAITZA:** Jaun apezpikua ezagutzen baituzu?

**PONPIDA:** O! Bai! Gizon gaitza da. Bai gobernadorearekin, bai ministroarekin arras adiskide!...

**ARKAITZA:** Bai eta gurekin ere. (*Irri maltzur batekin*) Eta orai, anderea, Nabarrenkoserat ari zinen, gu bezala?

**PONPIDA:** (*Harritua*) A! Zu ere heldu baitzira bilkura hortarat? Uste nuen soldado aintzindarietz bestalde, lau kontseilariak zirela bakarrik jitekoak. Hori erran daut Calvo jaunak.

**ARKAITZA:** Bilkura bererat ari gira bederen, zu eta ni? Zenbat orenetan da zurea?

**PONPIDA:** Afal aintzin. Afarirat noa ni bakarrik. Ez bilkurrat.

**ARKAITZA:** Nik bientzat dut gomita. Badakikezu zertaz dugun gure bilkura.

**PONPIDA:** Bai, jakin dudana, hiru kontseilari etsaien eta horien lagun zenbaiten preso sartzeaz omen duzue solas.

**ARKAITZA:** (*Irriz*) Eta guk zu preso hartu, ustez eta buru berotzale horietarik zinen.

**PONPIDA:** (*Irriz*) Kasu! Salatuko diot Calvori nola erabili nauzuen eta igorriko dauzkizue soldadoak, zuen preso hartzerat.

**ARKAITZA:** (*Irriz*) Datozila! Egingen diotegu ongi etorri!

**PONPIDA:** (*Irriz*) Bainan hola preso atxikitzen banauzu, etorriko dira soldadoak nik deitu gabe ere. Utz nezazu joaiteat! (*Xutitzen da*)

**ARKAITZA:** (*Hurbiltzen zaio laguntzeko*) Zinez, bihotza larri uzten zaitut urruntzerat. Etxe hontan betikotz sartu da zurekin, hemen izan zirelako oroitzapena.

**PONPIDA:** Oroitzapen ebatsia, jauna, ez bainintzen hona buruz abiatua. (*Jalitzen da*)

**ARKAITZA:** (*Bazterretik*) Oroitzapenez besterik ez balitz ebasten!... (*Jalitzen da. Gorderik dagozin biruak agertzen dira. Matalas lehenik*)

**MATALAS:** Orai bazakiagu gure etsaien barneko berri.

**OLHAIBI:** Hil edo bizi, jokatzera besterik ez dugu. Irabazten badugu oro irabazten ditugu. Galtzen badugu, hanbat gaixto!

**MATALAS:** Galdu edo irabazi, hori geroak erakutsiko. Gaurko eginbidea, partida jokatzera. Galtzen duenak ez dik desohorerik, zorigaitza baizik.

**OLHAIBI:** Bai, uko egileak du desohorea.

**ARKAITZA:** (*Sartuz*) Entzun duzue. Orai ez gaiten lo egon! Ni, gizon multzo batekin. Nabarrenkoserat banoa: Ihizi meta guzia saretarat bilduko dut eta, ontsa estekaturik. Mauleko jauregirat ekarriko.

**GOIHENETXE:** Bai, hik hori egin ezak! Guk beste gizon multzo batekin jauregi hortarat joko diagu eta jauregiatz jabetuko gaituk. Han preso ditugun lagunak libratuko ditiagu eta etsaiak han berean giltzatuko.

**ARKAITZA:** Ta Xubero guziak jakinen dik, herri ontasunen jabe, xuberotarrak gelditzen direla.

**GOIHENETXE:** Bai eta ere xuberotarren gidari... Xuberotarrak. Xuberoko Biltzar Nagusia bildu arte ordea, Xuberoko buruzagi bat guhaurek izendatu beharko nik uste. (*Hiru kontseilariak Matalasi begira*)

**ARKAITZA:** Zer ihardesten daukuzu, jaun erretora?

**MATALAS:** (*Apur bat ixilik egon ondoan*) Norbait behar bada, onartzen dut kargu hori.

**ARKAITZA:** (*Kartsuki*) Milesker, jaun erretora! Xuberoa eta gu salbatzen gaituzu!

**MATALAS:** Ez dut hargatik, apez bezala, armarik eskutan hartu nahi.

**ARKAITZA:** Armen lana bego gure gain! Ez dautzugu holakorik galdatzen.

**MATALAS:** (*Deliberatuki*) Ez dut ere nahi odol ixurtze debalderik. Jenden eta ontasunen errespetuan eraman dezagun gure saila! Eta lehenbailehen burura!

**ARKAITZA:** Zuk mana, jaun erretora, jarraikiko gitzaizu.

**MATALAS:** Ongi! Sarri Maulen, ixilka, sartuko naiz nihaur eta jauregiaren aintzinean aurkituko nauzue.





**ARKAITZA:** Beraz gu goazen gure xeden betetzerat. (*Jalitzen dira biru gizonak*)

**MATALAS:** (*Gogoetatua, bere buruari*) A, Matalas! Xede latza hartu duk! Nahitez norbaitek sakrifikatu behar!

**GOIHENETXE:** (*Asaldatua*) Osaba!

**MATALAS:** Zer da?

**GOIHENETXE:** Jaun apezpikua! Jaun apezpikua hor da, bere karrosan. Gure mutilek gelditu dute. Zu, behar omen zaitu ikusi.

**MATALAS:** Datorla!

**GOIHENETXE:** Osaba!

**MATALAS:** Zer duk?

**GOIHENETXE:** Ez duzula bederen hartu xedeari uko eginen!... Apezpikuak manatu dautzula, edo...

**MATALAS:** Zer dituk solas ahul horiek? Ala ez nauk oraino ezagutzen? Jakin ezak Matalasentzat hitza hitz dela eta ez dela apezpikurik ez debrurik bere hitza jan araziko dionik.

**GOIHENETXE:** Barkatu, osaba! Eta milesker! (*Jalitzen da... Apezpikua agertzen da ospetsu, manatari*)

**MATALAS:** Nere errespetuak, jaun apezpikua!

**APEZPIKU:** Egia da, jaun erretora, zutaz entzun dudana?

**MATALAS:** Hala daiteke, ez bada gezurtiek errana.

**APEZPIKU:** Egia da, jazarri zirela erregeren manuari?

**MATALAS:** Jarraiki naiz ene kontzientziari.

**APEZPIKU:** Obedientzia zor diozu lege zibilari.

**MATALAS:** Salbu zuzenkontrakoari.

**APEZPIKU:** Baduzu kopeta hola jaun gobernadoreari oldartzeko?

**MATALAS:** Eta hark ez ote, gauaz, neri, bi jandarma igortzeko?

**APEZPIKU:** Ukanen dituzu laster gobernadorearen berriak.

**MATALAS:** Ez ditu nornahi mandatariak!

**APEZPIKU:** Errespetua zor dautazu neri.

**MATALAS:** Errespetua zor diogu elgarri.

**APEZPIKU:** Apezak ez du behar politikan sartu.

**MATALAS:** Lege bera da, izanik ere apezpiku.

**APEZPIKU:** Eman eta utzi Zesar-i berea!

**MATALAS:** Xuberoa ez da Zesar-ena, baizik gurea.

**APEZPIKU:** Zesar-ek ohointza egin badu, beretzat du makurra.

**MATALAS:** Ez ote da hobendun ixilik dagon ate zakurra?

**APEZPIKU:** Jesusek erakutsi dauku jasaiten.

**MATALAS:** Jesus gobernuko gizonak kurutzean hil zuten.

**APEZPIKU:** Jesusek ez du erran, handiak behar direla mesprexatu.

**MATALAS:** Jesusek erran du tipiak behar direla lehen zerbitzatu.

**APEZPIKU:** Obedituko nauzula duzu hitzeman.

**MATALAS:** Gizon obedientzia ez da zakur herrestena.

**APEZPIKU:** Ez zira beldur Jainkoaren jujamenduaz?

**MATALAS:** Hala ninteki, ez banu axolarik Xuberoaz.

**APEZPIKU:** Oldartzen zirenaz geroz, zure gain ondorioak.

**MATALAS:** Badakit, jauna, jada dituzula nere kartak joak.

**APEZPIKU:** Agur beraz, eta ikas-azu izaiten umil!

**MATALAS:** Zure laguntzale, jaun apezpikua, bainan ez zure esku-makil!  
(*Apezpikua jalitzen da. Matalas ixilik dago apur bat eta gero emeki*)

«Hainitzek badakite beren herriaz baliatzen,  
Zenbaitek beren herria zerbitzaten,  
Arras gutik beren herriarentzat hiltzen.»

OIHALA



## HIRUGARREN EKITALDIA

### Joka-lekua:

Aintzineko oihal bera. Presondegiko mintza leku bat. Presonera, burdin ziriz inguratu etxola batetarat ekartzen dute, mintzatu behar delarik.

*(Oihala idekitzean, presondegiko zaindaria harat humat-ka badabila, etxola kanpotik zaintzen duelarik)*

**HEGOBÜRÜ:** *(Agertzen maltzur)* Zaindari! Mintza leku hontarat ekar-azu presonera. *(Zaindari badoa, eta apur baten buruan, Matalas ekartzen du, bi eskuak estekan, eta lotzen etxolako burdin ziriz bati. Gero jalitzen da... Hegobürü herratsu)* Hor zirea, jauntto? Ez dautzut erraiten «Jaun apez», ez «Jaun erretora». Egin duzunaren ondotik, ez baituzu holakorik merezi.

**MATALAS:** Ez naiz titre gose. Kargua hor dut. Hura aski zait.

**HEGOBÜRÜ:** Zer uste zinuten, gu garaitzea? Arkaitza lorios horrek denak preso hartu gintuen Nabarrenkosen eta handik Maulerat preso ekarri. Orduan burua harrorik zagon. Geroztik apaldu baitzaio, bera preso sartzearekin. Bai eta apalduko ere gehiago, sarri, urka soka lepotik ezarriko diotelarik.

**MATALAS:** Pentsu dut kalbario horren lekuko izan nahiko duzula, zu ziren Pilatusen soldadoak!

**HEGOBÜRÜ:** Preseski! Eta, damurik ez baitiote beste hoinbeste eginen zure ilobari eta Olhaibiri, beste bi kontseilari usteleri! Beso gaitzak baitituzte eta galeretan laguntza eskasa baitute, horrek diote burua salbatu. Bainan leku segurean izanen dira, sekulako galeretan: Erakutsiko diote zer den erregeren leialki zerbitzatzea.

**MATALAS:** Eta eni sarri burua aizkoraz moztuko dautatelarik, hor izanen ahal zira ere, aizkolariari esku kolpe baten emaiteko?

**HEGOBÜRÜ:** Bai zuk ere buru hori harro zinuen, Mauleko jauregian sartu zinelarik jazarle guzien buruzagi! Han preso zirenak libratu zinituzten eta gu haien lekuan ezarri. Mintzatu zinen orduan populuari, erranez: «Beren burua goratuko dutenak izanen dira apalduak!». Egia zinuen. *(Irri gaitzto batekin)*

Bakarrrik buruz zira tronpatu! Orduan esku zartak jo zituen populuak zure erraneri. Berdin berdina joko ditu laster zure hil zeinuari.

**MATALAS:** Zenbat ehun xuberotarrek, zorigaitzez ez dute egiten ahalko? Geroztik hil baitira.

**HEGOBÜRÜ:** Ta noren faltaz hil dira?

**MATALAS:** Galda hori zure nagusi, Frantziako errege xarmentari. Hark baitu igorri bere armada xuberotarren zafratzerat eta Xuberoko ontasunen suntsitzerat.

**HEGOBÜRÜ:** Bai eta ere gure libratzerat. Parise urrun dela-ta, uste zinuten, hango gure adiskidek laguntzarik gabe utziko gintuztela?

**MATALAS:** Ai, segur, kargutan zirezten multzo tipi horrek, ondorio onik ekarri diozue gaixo gure herri honi, Parisek eman indarrak baliatuz! Xuberoa duzue desjabetu bizipidea errekaratu eta azkenik xuberotarren odola ixurtzerat arrotzak hona deitu.

**HEGOBÜRÜ:** Horiek oro ez ziren gertatuko, egon bazinete geldirik.

**MATALAS:** Ohoinak etxean sartu-eta, zer ginuen, besoak kurutze egon behar, haierri so? Ala, zuek bezala, ohoineri erran, nahi zutena eraman zezaten? *(Haserre)* Hola mintzo den gizonak, gizon izena merezi ote du? Hola jokutzen den xuberotarrak bere herria maite ote du?

**HEGOBÜRÜ:** Zu bezain xuberotarra naiz ni.

**MATALAS:** Bai Judas ere Jondoni Petri bezain judua zen bezala. Dirutan truk herriaren saltzale batzu; aintzinetik musu, gibeletik ostiko, horra zer zirezten, zu eta zure lagunak!

**HEGOBÜRÜ:** Ez gira zure baimen eta erakaspenen beharretan gure herriaren maitatzeko.

**MATALAS:** Maitasunik ez da sakrifiziorik gabe. Zein dira zure sakrifizioak Xuberoaren alde? Zer kargu duzu sakrifikatu? Zer diru galdu? Zer pairamen jasan? Xuberoko jendearen larrutzalari diozute esku eman eta Xuberoaren larrutzetik zirezte aberastu, diruzale maltzur ustelak, zuek!

**HEGOBÜRÜ:** Ez du balio hola jar zaitezzen oihuka! Ez zira prediku alkian. Ez naiz zure predikuaren entzuterat etorria.

**MATALAS:** Zertarat jina zira bada hona?

**HEGOBÜRÜ:** Bestek manaturik naiz jina, ez ene baitarik: Ea piska bat eztitu zinen, mantsotu, zentzatu, jakiteko.

**MATALAS:** Zer duzue ahulezia bat niganik igurikatzen?





- HEGOBÜRÜ:** Ahulezia aberatsa menturaz zuretzat, zure burua salba baitiezazuke.
- MATALAS:** Ez gira jauna, birika beraren jabe, gu biak: Neretzat, biziak ez du estimurik, bizitzeko arrazoinek emaiten diotena baizik. Nahiago dut miletan hil nere sailetik baztertu edo nere saila ukatu baino!
- HEGOBÜRÜ:** Hilan zaitugu beraz, hola nahi duzunaz geroz. Nardatzale bat gutiago, bizirik gelditzen girenentzat!
- MATALAS:** Ni hil-eta gero, ene itzala biziko da Xuberoan. Zu biziko zira, bainan bizirik hila izanen zira. Herioa jinen zure bila, zikin-ketariak zikinketa bezala. Euskaldun ume garbiek tu eginen diote zure itxurari. On dagizula holako geroa!
- HEGOBÜRÜ:** Profeta bezala mintzo zira geroaz, bainan zure erranak ez dituzu zeruak salatuak, zure sukar gaiztoak baizik. Biziak badu zerbaiten mentura, bizigabeak aldiz ezdeusa segura. Lepoak traba egiten badautzu, lepoa kenduko dautzugu. Zure xede horren betetzen laguntzea atsegin eta ohore daiteke neretzat. *(Irri gaizto batekin jalitzen da. Zaindaria sartzen da, abamen bat jaten ari dela)*
- MATALAS:** *(Zaindariari mintzo)* Eta zuk, Zaindari, zer diozu gure auziaz?
- ZAINDARI:** Ni, jauna, ez naiz politikan sartzen. Jenden arteko ordena zaintzea da nere ofizioa.
- MATALAS:** Noren ordena?
- ZAINDARI:** Manatzalari dut obeditzen. Ez naiz manatzalen arteko gudu-ketan sartzen. Nagusi denari naiz jarraitzen.
- MATALAS:** Duela zenbait egun, zuhaur zinen, guk hemen preso sartu erregetiarren zaintzale. Orduan gure ordena zinen zaintzen. Zein da egiazko ordena? Haiena ala gurea?
- ZAINDARI:** Nik ez dakit. Zuen aldekoak zaindu ditut, zuek haien libratzerat jin artino. Gero zaindu ditut zuen presonerak. Orai berriz zuek zaintzen zaituztet.
- MATALAS:** Beraz, presondegi hontako burdin ziri hauek bezala zira. Edozeinen zaindari; orentzat berdin hotz eta ezazol, izan dituen hobendun ala hobengabe. Uste duzu zure jokabidea gizon denari doakona dela?
- ZAINDARI:** Gu bezalakoak tipiegi gira, gure baitakoari jarraitzeko: Handienganik dugu gure eguneko ogia eta horien erranari behar dugu, nahitez plegatu.

- MATALAS:** Ta orai neri lepoa moztuko baitautet aizkoraz, lan hori manatzen badautzute, berdin eginen duzu?
- ZAINDARI:** Nik, nagusia behar dut obeditu.
- MATALAS:** Orai arte, hil duzu gizon kondenaturik?
- ZAINDARI:** Nik... manatua beti egin dut.
- MATALAS:** Eta etxerat itzultzen zirelarik, hemengo lan lazarria eginik, barneak ez dautzu mintzen familiari zor diozun goxotasuna?
- ZAINDARI:** Hemengo lana bat da eta familiako bizia beste bat: Hemengo gorabeherak hemen uzten ditut, kanporat jaltzean.
- MATALAS:** Haurrek, burasoenganik ikasten baitute nola bizi, zer erakapen emaiten diozute zure haurreri?
- ZAINDARI:** Nik beti erraiten diotedana da: Ez dituen handien arteko salsetan sar, nahi badute bakean bizi. Egon dituen ere beren mihiaren jabe, eta zangoa nun ezartzen duten, kasu eman dezaten. Funtsean oneski bizi daitezten. Oneski bizitzea, hori izan da beti gure etxeko legea: Beti elizako urratseri jarraikiak izan gira. Gure aitamak hala ziren, eta etsenplu bera eman diotet ene haurreri.
- MATALAS:** Ez duzu uste gure biziak izan dezakela zimendu finkoagorik: Besten erranetik ari zira eta ez fedea eskatzen daukun gure baitakotik. Politikaren aro aldakorra duzu izar gidari eta ez zure sinesteak eman argia.
- ZAINDARI:** Nik deus ez dakit... «Euskaldun fededun» izan behar dugula, ikasi dut betidanik... *(Aterat buruz)* A! Norbait bada atean! Nor da hor?... Aintzina!
- GOBERNADORE:** *(Pergamino bat eskuan agertzen da)* Zaindari, eremazu Matalas bere preso gelarat eta ez hona ager nik deitu arte! *(Biak badoaz eta berriz ateari buruz itzultzen da gobernadorea)* Sar zaitte, sar, Calvo jauna! Bakarrrik gira hemen.
- CALVO:** Hegobürü kontseilariarekin mintzatu naiz: Hona igorria nuen ikus zezan zertan den Matalasen gogo. Uste dut —eta jaun apezpikuari ere hala iduritzen zaio— hobe ginukela Matalas ez hiltzea. Behar ginuke polliki bildu urrikitan sartzerat eta barkamendu galdatzerat. Jazarleek entzun lezakete beren buruzagiaren ahotik, enganatuak izan direla.
- GOBERNADORE:** Matalasek barkamendu eskatu? Ongi ezagutzen dut gizona: Aintzinetik erraiten dautzut ez dugula hori ardietsiko.



**CALVO:** Bainan badakizu, jaun gobernadorea, nola kexu den jendea, azken gertakarien ondotik. Behar ginuke nolazpait populua jabaldu.

**GOBERNADORE:** Adimen zorrotzegia du Matalasek, gure saretarat erortzeko. Beste jokabiderik behar dugu hartu. Xuberoko buruzagiak munta ditzagun batzu besten kontra, xahu baigintezke, guziek bat egin balezate. Ez dezagun guk hil Matalas, bainan hemengo herri gizoneri galda diezotegun, hil behar den ala ez. Hegobürü heriotzearen alde mintzatu da segur. Bainan izanen dira ere kontrakoak. Guk askiko dugu bazterretik egoitea, gurea gogoan eta barnetik irriz, xoro horiek nola nahasten ditugun.

**CALVO:** Ez da gaizki asmatua. Berehala egingen dut jaun horien biltzarra, berek delibera dezaten, Matalas hil behar dugun ala ez.

**GOBERNADORE:** Gero, Matalastiarrek baitiote euskaldungoaren etsaiak girela, jendeari erakusteko ezetz, ez girela hortarik ari, fagora ditzagun pilota, dantza eta josteta. Zer zauku guri jendea abusa dadin bere gisara, moltsa eta bizipidea eskutan ditugunaz geroz? Ezin bentzutu baditugu oraino, askiko dugu bizipidea xuhurtzea. Bizitzekorik ez badu aurkitzen hemen, gazteak lekuak hustu beharko ditu. Ta gazteak urrunduz geroz, nahitez ahulduko da herria.

**CALVO:** Bai eta nik uste, ahulduko dugu ere eskolaren bidez: Emeki emeki Xuberolari kenduko baitiogu bere mintzaira berezia, euskara ordainduz, frantsesaren bidez.

**GOBERNADORE:** Ez daiteke egun baten lana izan hola gauzen aldatzea, bainan polliki polliki Pariseko erregeren gizonak nagusitzearekin, ez ditugu ikusiko hona heldu zerga eske, bainan hemengo gizonak dute joan beharko Pariserat diru eske.

**CALVO:** Ikusten dut erroitik ikasia duzula eraman behar dugun bidea. Jakin araziko diot hori gure errege jaunari, eta ondoko egunetan, Britainia alde hortan edo... gobernadore kargu zerbait... Bainan oraingoz gure herri gizonen biltzarra egiterat noa. Anartean atsegin nuke, zuk zure aldetik, azken aldikotz, Matalas mintza bazineza!

**GOBERNADORE:** Entseiatuko naiz, jauna!

**CALVO:** Laster arte, beraz! (*Jalitzzen da*)

**GOBERNADORE:** Bai, laster arte!... (*Zaindariari oihuka*) Zaindari!

**ZAINDARI:** (*Agertuz*) Zerbitzari, jaun gobernadorea!

**GOBERNADORE:** Ekar-azu otoi, hona, Matalas!

**ZAINDARI:** Ontsa da, jauna! (*Ekartzen du Matalas, estekatzen eta badoa*)

**GOBERNADORE:** Matalas jauna, berri on batekin heldu naiz.

**MATALAS:** (*Bere buruari*) Beraz neretzat berri txarra.

**GOBERNADORE:** Egiak bere aitorra behar du: Norbait zira eta baduzu hainitz adiskide Xuberotan.

**MATALAS:** (*Bere buruari*) Gatu horrek badik beste buztanik!

**GOBERNADORE:** Ikusiz zure ahal handiak eta Xuberolari ahal horiek oraino ere ekar diezoketen laguntza, Calvo jaunak eskaturik, heldu nitzaizu antolamendu baten eskaintzerat.

**MATALAS:** (*Hortzen artetik*) Antolamendu! Ikusten haut heldu!

**GOBERNADORE:** Ikusiz bestalde zure baitan daukazu kargu sakratua: Apeztasuna eta errege jaunak Elizari dion atxikimendua...

**MATALAS:** (*Solasa moztuz eta goratik*) Bakea, jaun gobernadorea, bakea! Otoi! Zure tetelekeriekin. Errazu bi hitzez, erran gogo duzuna eta bakea niri!

**GOBERNADORE:** (*Idorki*) Horra beraz; hauxe duzu hautua: Edo aizkoraz sarri hil, edo barkamendua galdutuz zure burua salbatu.

**MATALAS:** Zure nagusi handiari ihardetsiko diozu ene partez: Matalasekin nahi balin badu antolamendu bat egin, itzul ditzala lehenik beren jabetza, ebatsi diozkaten lurrak. Bigarrenekorik, bere basakeriez barkamendu eska diezotela xuberotarreri eta hitzeman ordainduko dituela, ahalaz, egin diozkaten kalte ikaragarriak. Hirugarrenekorik, zu, Calvo eta beste Paristar manatariak joan zaitezela manatzerat zuen lekuetarat, xuberotarrak utziz beren buruen jaun eta jabe... Horiek onart ditzala zure Calvok, bere gizon eginbidea beteko du; Matalasek barkatuko dio eta bakea emanen.

**GOBERNADORE:** Aski argitua naiz engoitik zure barneko berriez: Zure amets ederrekin uzten zaitut. Banoa Calvori...

**ZAINDARI:** (*Asaldaturik*) Jaun gobernadorea, apezpiku jauna hemen da; Matalasekin nahi luke solas egin!

**GOBERNADORE:** Ontsa da... Nihaurek sar araziko dut. (*Maltzurki*) Pentu dut ongi etorri hobea egingen diola apezak Jainkoaren gizonari, ezenez-eta erregeren ordainari.

**MATALAS:** Egiaren atea zabalik dago hemen deneri. (*Jalitzen dira herabe, gobernadorea eta zaindaria, Matalas bakarrik utziz*) Judas, Burregoa, Pilatus eta orai, nor ote? Kaifas ote? Ez agian!

**ZAINDARI:** Aintzina, jaun apezpikua!



**APEZPIKU:** Agur, jaun erretora!

**MATALAS:** Nere errespetuak, jaun apezpikua!

**APEZPIKU:** Eginahalak egiten ari naiz zure bizia salbatzeko, bainan deus ez dezaket zure laguntza gabe.

**MATALAS:** Ta zer laguntza igurikatzen duzu niganik?

**APEZPIKU:** Frantziako erregeari behar zinueke amor eman.

**MATALAS:** Badakizu nik bezain ontsa Xuberoa josia izan dela Frantziari duela berrogoita hamar bat urte, ezkontza bidez. Orduan Frantziako erregeak zin egin zuen Xuberoa utziko zuela, aintzinean bezala, bere gain gobernatzera. Geroztik hainitz aldiz bere hitza jan du Frantziako erregeak. Azkenik oraino, bere zorren tapatzeko, Xuberoa herri lurren saltzen hasi da, bereak balitu bezala. Galdatzen dautzut, jaun apezpikua, nork du behar amor eman? Nork hutsak ordaindu? Ohointza jasan duenak, ala ohointza egin duenak?

**APEZPIKU:** Elizako gorabeheretan, apezpikua da bere eskualdean manatzale eta gaurko egunean hemengo apezpikua ni bainaiz, neri dagokit fededunen gidatzea. Ez edozein apezpi.

**MATALAS:** Duela ehun urte, jauna, hemengo apezpikuak izena zuen Gérard Roussel. Nafarroako bere erreginari kausitzeko, protestant bilakatu zen eta Xubero guzia protestant egin nahi izan zuen. Apezpiku horri oldartu ziren apezpek gaizki egin ote zuten? Horietarik zenbaitek bizia galdu zuten, bainan sakrifizio horri esker zuen menturaz Xuberoak katoliko fedea begiratu.

**APEZPIKU:** Badira Xuberoan ideia guzietako fededunak. Elizak behar du ororen libertatea errespetatu; ez du eskualde baten alderdia hartu behar.

**MATALAS:** Libertatea zor zaigunaz orori, zergatik ez diote xuberotarreri libertate horren hautua emaiten? Ni bai libertate horren alde altxatu naiz. Eta zu?

**APEZPIKU:** Apezpiku batek behar du artaldea zuhurki gidatu eta batzutan landako bihi onarengatik iraka gaiztoa jasan. Xuberoaren makurbidean ixilik egon naiz ez alderdikeria, bainan kalte handiagoen beldurrez. Ez ote duzu uste gaurko egunean hobeki izanen zela herri hau, erregeren salmentak onartu balitu?

**MATALAS:** Ez dakit, jauna, zenbat eztabaidatu duzun zure baitan egin duzun hautua. Ikusten dudana da errege bidea duzula

hartu, ez kurutze bide nekea; ez jende xeheari laguntzen diona, bainan bai jende handieri jende xeheak sakrifikatzen dizkiona. Besterik ziren naski, Jesusen solasak eta urratsak.

**APEZPIKU:** Denen aita den Jainkoak, denak jukatuko gaitu. Zuretzat otoitz egingen dut, jaun erretora!

**MATALAS:** Nere odolaz azkar bedi eta garbi Xuberoan, zeruko erresuma!

**APEZPIKU:** (*Jalitzen da ilun*) Herrarik gabe, jaun erretora!

**MATALAS:** Zeruan bezala lurrean ere, jaun apezpikua! (*Zaindari agertzen da eta ixilik eramaiten du Matalas*)

**HEGOBÜRÜ:** (*Zaintsu*) Eup! Non zira, Zaindari?

**ZAINDARI:** (*Agertzen*) Heldu, jauna, heldu!

**HEGOBÜRÜ:** Zure beharretan gira: Calvo jaunak eman daut Matalas hiltzeko kargua.

**ZAINDARI:** (*Beldurti*) Eta noiz egingen duzu hori?

**HEGOBÜRÜ:** O! Lehenbailehen... Pentsatzen dut onartuko duzula mandil horri lepoa mozteko kargua.

**ZAINDARI:** (*Buruari haska*) Badakizu, jauna, adina hor da... ta... ez dut besoa lehen bezain fermu... ta...

**HEGOBÜRÜ:** Errege jaunaren nahia da, zu bezalako euskaldun egiazko batek, lepoa motz diezon euskaldun izaitea zer den erakutsi behar omen zaukun apostolu horri. Ukanen duzu nahi duzuna edaterat eta behar dena pagatuko zaitut.

**ZAINDARI:** Ez da hortan, jauna, bainan nik ez dut ene burua lan horri lotzeko on kausitzen... Hor dituzu erregeren soldadoak. Hor aurkituko duzu behar duzun gizona.

**HEGOBÜRÜ:** (*Umore txarrean*) Ontsa da! Joanen naiz horietarat. (*Jalitzen da*)

**ZAINDARI:** (*Apur bat bakarrik, gogoetatua*) Norbait bada?... Aintzina!

**PONPIDA:** (*Agertzen*) Agur, Zaindari!

**ZAINDARI:** (*Kexu*) Emazteak hemen? Tenore hontan? Zer da holakorik?

**PONPIDA:** Andere Ponpida naiz: Hona Calvo ministroaren baimena hemen sartzeko eta Matalasekin mintzatzeko.

**ZAINDARI:** (*Papera ikertuz*) A! Hola! Zu zira beraz andere hura! Barka! Barka! Matalas ekartzen dautzut berehala. (*Jalitzen da eta Matalas ekartzen*)

**PONPIDA:** Agur, jaun erretora! Ez nauzu beharbada ezagutzen: Andere Ponpida naiz.

**MATALAS:** Zerk ekartzen zaitu hona, anderea?



- PONPIDA:** Betidanik, halako latz bat eman daut heriotzeari pentsatzeak, deneri bezala, nik uste. Jakin nahi nuen zertan zen zure gogo, oren ilun hontan.
- MATALAS:** Zer naiz ni zuretzat, Anderea? Zirketako kabala ikusgarri bat?
- PONPIDA:** Barka, otoi, jaun apezal! Ez naiz jakin gose ergelez etorria, bainan bihotza urrikalmenduz beterik.
- MATALAS:** Urrikalmenduaren harria orok botatzen diotela, guduka galdu duenari bai badakit. Bainan zuri ere, anderea, larru eder hori zimurtuko zaizu noizbait. Orduan bazterrerat aurtikia izanen zira haur jostagailu hautsi bat bezala. Zure guduka galdurik geldituko zira, ni orai bezala, bakarrik, ororen urrikalgarri.
- PONPIDA:** Jauna, ez naiz zuk uste duzuna. Eskualde hontara etorria nintzen zenbait egun goxo iragaiteko xedearekin. Ez dut hemen aurkitu gerla eta odol ixurtze baizik. Eginahalak egin ditut joak diren guzien laguntzeko. Zu ere nahi zintuzket lagundu. Calvo jaunari galdatu diot zure biziaren grazia. Barkatuko dautzula hitzeman daut, zuk barkamendu eskatzekotan. Horra, jauna... Hitz bat aski dut zureganik... Calvo gizon ona da.
- MATALAS:** Calvo gizon ona!... Bai gizon ona, deitzen duzu, bere emaztea Parisen, nigarrez urtua utzi duen gizona!
- PONPIDA:** Gure ahuleziak baditugu orok, jauna! Aldaxka zenbait eihartuak dituen arbolak oso-oso surat botatzea merezi ote du?
- MATALAS:** Egia duzu, anderea, Calvoren zuzenkontrako amodio hori ez da bekatuxka bat baizik, bizpahiru presunentzat bakarrik baita kaltekor. Bainan miletan hobendunago da Calvo, kargudun bezala hemen egin dituen abrekeriez: Ehunka dira gaur, Xuberoan, haren faltaz, alargunts eta umezurtzak, ehunka etxalde erre eta hondatuak.
- PONPIDA:** Otoi, ixil zait! Oro begietan ditut: Horien aipatzeak berak bihotza lazten daut. Nahi nuke sarraski hau burura dadin behin betikotz!
- HEGOBÜRÜ:** (*Bapatean sartuz*) Non zira, Zaindari? (*Ponpidari obartzarekin*) A! Barkatu, anderea! Solasean zinauden!
- MATALAS:** Erraitekoak errantxe ditugu.
- HEGOBÜRÜ:** (*Moztuz*) Ez dautzut zuri deus galdatzen.
- ZAINDARI:** (*Hegobürüri buruz*) Jauna, badira atean bi emazte eta haur bat, Matalasekin mintzatu nahiz.

- HEGOBÜRÜ:** Errozuete ezetz. Badugula beste egitekorik. Sar-azu Matalas bere presogelan.
- MATALAS:** (*Ponpidari*) Galdatzen ahal dautzut fagore bat?
- PONPIDA:** (*Hunkitua*) Zer, jauna?
- MATALAS:** Ate hortan den mutikoa nere iloba da, segur naiz. Hor diren bi emaztekiak hobe ditut ez ikusi, bainan mutiko horri nahi nioke egin azken agur bat. (*Ponpida jalitzzen da. Zaindari kezkatua. Ponpida agertzen da, Benat eskutik eta baztertzen ixilik*) Milesker, anderea! Bihotz ona izan baituzu, Jainkoak hainitz barkatuko dautzu. Azken aldikotz, Benat, diagu lur hontan elgar ikusten. Badakik nola den gure etxe gibelean gaztain ondo zahar bat eroria. Haren inguruan landare berri andana bat ari duk muskiltzen. Ni nauk gaztain ondo zaharra. Hi eta hire heinekoak zirezte muskil gazteak. Harazue nere lekua. Baten orde, hamar altxa zaitetzte!... Zuek, gazteak, ez egin so gaurko lanoari, bainan bai biharko izarrrari!
- HEGOBÜRÜ:** (*Sartzen da herratsu*) Zer duzue hola egoiteko? Ala Matalasen itzala hemen geldituko dela uste duzue? (*Orroaz*) Zaindari, eraman-azu gizon hori!...
- MATALAS:** (*Jalitzzen, emeki mintzatur*) Bai Hegobürü, Matalasen itzala hemen geldituko da... betikotz. (*Jalitzzen dira, Zaindari, Matalas eta Hegobürü. Ponpida bere xokoan dago. Benatek so egiten dio preso etxolaren burdin ziriari loturik gelditu den katenari. Berak eskutan hartzen du eta taulagain aintzinerat jirik, lurrerat aurtikitzen, hitzik erran gabe*)

OIHALA